

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
0 positibo berri	zehaztu gabe hildako	61 positibo berri	2 hildako
2.313 positibo guztira*	6 hildako EAEn	9.019 positibo guztira	77 ospitalizatuta
*Hernanin 60 Astigarragan 20		Sendatuak: 17.702 EAEn; 5.049 Naf.	

Matrikula epea irekita dago, Haurreskoletan

Ekainaren 8ra arte online egin daitezke matrikulak Hernanin eta Astigarragan. Ekainaren 1etik 8ra, aurrez aurre.

ASTIGARRAGA-HERNANI HEZKUNTZA

Irekita dago matrikula epea Haurreskoletan; bai Hernanikoan (Sagastialdeberri auzoan), eta baita Astigarragako Kiriketaren (Nabarra Oñatz, 11) ere. Partzuergoak kudeatzen dituen Haurreskolak dira biak, eta 2019 eta 2020 urteetan jaiotako haurren guraso edo legezko tutoreek aukera daukate plaza eskatzeko, 0-2 urte arteko haurrak hartzen baitituzte.

Oraingoa, ikasturtean zehar irekitzen diren hiru matrikula epeetan aurrenekoa da, ikasturtea irailean, urrian edo azaroan hasteko. Hurrengo matrikulazio epealdia, urriaren 1etik 9ra artekoa izango da, abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko, eta hirugarrena, urtarrilaren 7tik 13ra artekoa, martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean hasteko.

Online edo aurrez aurre

Matrikula online egiteko epea irekita dago, eta ekainaren 8ra arte egin ahal izango da, Haurreskolak Partzuergoko webgunean: www.haurreskolak.eus.

Aurrez aurre ere egin ahal izango da matrikula Haurresko-

la bakoitzean, baina ekainaren 1etik 8rako tartean.

Zerrendak, uztailaren 28an

Matrikulazio epea ekainaren 8an bukatuko da, eta behin-behineko zerrendak ekainaren 30ean argitaratuko dira. Ondoren, erreklamazio eta subsanazio epea irekiko da, uztailaren 1etik 14ra. Epe horretan eskariari uko egiteko aukera ere izango da.

Erreklamazioek eta uko egiteek eragin ditzaketan aldaketak kontuan hartuta, behin betiko zerrendak uztailaren 28an argitaratuko dira, eta ikasturtea, dena ondo bidean, irailaren 4an hasiko da. Baina, dagoeneko jakinarazi dute COVID-19 gaitza dela-eta, hasiera data hau atzeratu daitekeela.

Hezkuntza prozesuan, funtsezko aldia

Matrikulazio kanpaina hasita, Hernaniko Udalak eskutitzak bidali ditu 0-2 urte arteko haurren etxeetara, horren berri emateko. Bertan, Oier Agirresarobe, Hezkuntzako zinegotziak adierazi du «haurren bizitzako funtsezko aldia» dela, 0-2 urte artekoa. «Bizitzaren une horie-



Haurreskolek 0 eta 2 urte arteko haurrak hartzen dituzte.

tan garatzen dira hazkunde fisikoa, garapen psikomotorra, soziala eta intelektuala, eta horiei esker sendotzen ditu haurrak inguruarekiko eta beste pertsonarekiko harremanak.

Helburu horiek guztiak jasotzen ditu Haurreskolako hezkuntza proiektuak, jolasa oinarri, eta prozesua gurasoekin elkarlanean garatuta. Denera, 126 plaza dauzka, eta haurrak 16 aste beteta izan behar ditu hasi ahal izateko. Irailetik uztaile-ra egoten da irekita, 07:30etatik 17:00etara, baina haurrak, gehienez, 8 ordu egin ditzake bertan egunean. Kuotak, 8 edo 5 ordukoak dira.

Horrez gain, elikadura ere hezkuntza proiektuan lehentasunezko gaia dela azpimarratu du zinegotziak, «elikadura hezitzailea eta osasuntsua bultzatzeko», eta horregatik, urteak dira Hernanin «gertuko elikagaiak eta garaian garaiko produktuak» erabiltzen direla menuak. Hilabete osoko bazkariengatik, 76,55 euro ordaintzen dira; meriendagatik, 17,28. Bazkari bakoitzagatik, berriz, 4,70 euro, eta merienda bakoitzagatik, 1,45. Dena den, zazpi hilabete bete arte, sukaldeko zerbitzua doan da, eta deskontuak badira bi edo hiru senide batera eramaten dituztenentzat eta familia bakoitzaren urteko diru-sa-

rreren arabera. Hauek tramitatze-ko, Udaleko Hezkuntza Sailera jo behar da: 943 33 70 41 edo hezkuntza@hernani.eus.

Zuzenean Haurreskolarekin harremanetan jartzeko, berriz, hernani.hernani@haurreskolak.eus helbidea edo 943 55 29 91 telefonoa erabili daitezke.

Kiriketa ezagutzeko, bideoa

Astigarragako Kiriketa Haurreskola ezagutzeko, bestalde, atez-irekiak egiten dira normalean. Aurten ezin denez, bideoa egin dute hezitzaileek. Harremanetan jartzeko, 943 57 34 64 telefonoa edo kiriketa.astigarraga@haurreskolak.eus. **K**

Postu gehiago gaurko azokan, baina gune desberdinetan

Ostegunetako azoka bere onera bueltatzen ari da. Gaur, postu gehiago jarriko dira, baina Urbietan, Plazan eta Zinkoenean.

HERNANI AZOKA

Alarma egoeran, baina fase berrian murgilduta, «kalean egiten diren azoken baldintzak lasaitu» egin direla jakinarazi du

Udalak, eta hori horrela, «Hernanin egiten den ostegunetako azoka, pixkanaka-pixkanaka, bere onera itzultzen ari dela.

Beraz, gaurko azokan postu gehiago jarriko dira berrir, eli-

kagaienez gain, baina gune desberdinetan.

Urbietan, Plazan eta Zinkoenean banatuta, gaur jarriko diren 16 postuak

Denera, gaurko azokan 16 postu jarriko dira. Izan ere, elikagaien postuez gain, arropa, landareak eta bestelakoak saltzen dituztenak ere bueltan izango dira.

Dena den, «herritarren arteko segurtasun distantziak bermatzeko», Udalak erabaki du postu horiek eremu desberdinetan banatzea. Horrela, elikagaien postuak, orain arte bezala, Urbietan kalean jarriko dira, eta landare saltzaileak, Latsunbeberri. Baina arropa eta gainerako salmenta postuak ere martxan izango dira

gaurtik aurrera, eta hauek, Zinkoenean eta Gudarien Plazan jarriko dira.

Orain arte bezala, garrantzitsua izango da bezeroen artean segurtasun distantziak mantentzea, bereziki, ilarak osatzean, jende pilaketak saihesteko. Modu horretan, pixkanaka ohiko martxa hartu ahal izango du ostegunetako azokak. **K**

ALAI A

ODONTOLOGIA ZENTROA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA
Astehenerdik ostiralera: 08:30 - 21:00
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

PREBENTZIO ETA KONTSERBAZIO ODONTOLOGIA	ODONTOPEDIATRIA
HORTZ ESTETIKA	ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK
AHO KIRURGIA	TELERADIOGRAFIK
INPLANTEAK	3D SCANNERRA
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA	AHO BARRUKO SCANNERRA
PERIODONTZIA	KIRURJIA NABEGATUA
ORTHOAPNEA	ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

Antziola 11, behea. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaihernani@gmail.com

Arrandegia

Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobi.: 665 735 224
20120 Hernani

ISABEL

Janari denda

Tomas Alba 11,
Astigarraga
943 55 23 67

GAUR Hego-ekialdeko haizea ibiliko da, zeruan eguzkia izango da nagusi, eta tenperatura dezentzera igoko da, baita kostaldean ere. **Min.16° / Max.28°**

BIHAR Eguzkia izango da nagusi berriro, eta tenperatura nahiko altua, baina bezperan baino baxueagoa, kostaldean. Arratsaldean brisa sartuko da. **Min.15° / Max.26°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gazez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



San Joanak bertan behera, eta aurrekontuak «hankaz gora»

COVID-19aren eraginari aurre egiteko hainbat erabaki hartu ziren astearteko Plenoan.

HERNANI PLENOA

Osasun alarma-egoera ezarri zenetik bigarren Pleno telematikoa egin zuen Udalak asteartean. Zuzenean YouTube jarraitzeko aukera ere izan zuten herritarrek.

Aurreko akta onartu eta azken dekretuen berri emanda, giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren Igo fasea onartu zuten, aho batez, 2020-2025 aldiari dagokion Plan Estrategikoaren barruan. Horrela, kotizazio neurri eta baldintzak beteta dauzkate-lako aurretiazko erretiroa hartu dezaketen udal langileei Udalak konpentsazioa ordaintzea onartu zen, belaunaldi aldaketarekin efizientzia hobetu eta gastua murrizten dela-eta. Elkarrekin Podemosek langileen %43,24 interinoak direlako kezka azaldu zuen, eta alkateak argitu zuen planaren hurrengo faseetan landuko dela hori.

Gainerako puntuetan, Covid-19ak bereziki diru kontuetan izango duen eraginaz aritu ziren.

Tasei, hobariak

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko Tasen Ordenantza Fiskala aldatzeko proposamena ere aho batez onartu zuten.

Isa Sanchez Ogasun zinegotziak azaldu bezala, %100eko hobariak aplikatuko zaizkie komertzio, ostalari edo eremu industrialeko hondakin bilketa eta ur hornidura tasei. Erroldako datuen bidez, ofizioz aplikatuko dira.

Era berean, %25, %100 edo zerbitzuak izan duen murrizketaren proportzionalitate bereko hobariak aplikatuko zaizkie, baita ere, Hernani eta Kantuz musika eskolako, kultura saile-



Telematikoki egindako bigarren Pleno izan zen asteartekoa.

ko ikastaroetako, udal euskaltegiko eta kiroldegiko tasei ere.

Hobariak ofizioz aplikatzea «ahalik eta modu errazenean» egiteagatik erabaki dela azaldu zuen Xabier Lertxundi alkateak. Terrazak jartzeagatik ostalariek ordaintzen duten tasari dagokionez, «lantzen» ari direla argitu zuen.

Aurrekontuan, arazorik ez

Kontu-hartzaileak udal aurrekontuaren egoerari buruz osatutako txostenaren berri eman zuen Sanchezek segidan. Aurrekontuak «hankaz gora» egon arren, «legeak ezarritako epeetan hornitzaileei ordaintzeko Udalak arazorik ez» duela nabarmendu zuen. Alkateak azpimarratu zuen «Covid-19ak izandako eragin ekonomikoak sortutako behar gehienei erantzuteko Udalak egindako lana», eta asmoa azaldu zuen «gehiago behar izanez gero, horretan segitzeko».

Aurrekontuak izan dituen aldaketan azalpenetan, Sanchezek argitu zuen Udalaren, Zerbitzu Sozialen eta Erenotzuko toki entitatearen gastu eta sarreraren exekuzioa nola dagoen, eta zein kreditu aldaketa egin diren. Zerbitzu Sozialek 118.992 euroko kreditu gehikuntza jaso dute Jaurlaritzatik, eta 240.000 eurokoa Udaletik, «personal gastuetarako». Orokorrean, diru-sarrera murrizketa ia 5 milioi eurokoa izango da, eta gastuen gehikuntza 1.759.000 eurokoa. Horri aurre egiteko bideak izango dira, Zikunagako Papelerak erai-

kuntza zerga gisa ordaindutako 2.388.000 euro, 2019ko 4 milioiko gerakina eta aurreikusitako inbertsioetan lehentasunak jartzea.

Aldundiak udaletara bideratzen duen Foru Funtsa ere murriztu egingo dela aipatu zen, %20. Epez kanpo sartu zenez, EAJk erretiratu egin zuen gai-ri lotutako bere mozioa, eta EH Bilduren onartu zen Elkarrekin Podemos eta EH Bilduren aldeko botoekin eta PSE eta EAJren kontrakoekin. Aldundiak «erabakia aldeakarez» hartu izanaz kezkatzen da EH Bildu, eta ko-gobernantzarako eskaera luzatzen dio (mozioa osorik: kronika.eus).

Jaiak eta eskaerak

Gainerakoan, gai-ordenean sartu eta oposizioaren abstentzioarekin onartu zen Mattin Aldaia izendatzea, alkatearen orde, industrialdeen garapenerako Beterri Kosta erakundeko ordezkari.

Jakinarazi zen, bestalde, San Joanak eta Preludioa bertan behera geratu direla, baina «ekintza kultural batzuk» antolatzen» ari direla. Horrez gain, Ekintza Planean onartutako tokiko kontsumora bideratzeko bonoak ekainean martxan jartzea aurreikusitako dela argitu zen.

Azkenik, herritar batek kexa azaldu zuen garaje aurrean erai-ki dioten eskailerak ez diolako uzten garajea erabiltzen, eta Udalaren aldetik ez duelako arretarik jaso. Eskaera erregistroan egiteko erantzun zitzaion. **K**

Bertsolariaren burura, Zilegi Eskolan

Online saioan, bertsolariak nola pentsatzen duen ikasi ahal izango da gaur, 18:30etan. Bestalde, aurrematrikula epea irekia dauka AEK-k.

ASTIGARRAGA-HERNANI AEK

Etxetik ere, Zilegi Eskolekin jarraitzeko aukera eman du AEK euskaltegiak. Gaurko antolatutako saioa: Nola pentsatzen

du bertsolariak?. Galdera horri erantzunez, kantatzera dijoan bertsolarien burutik zer pasatzen den erakusten saiatuko da Iker Goñi Salaberria. Saioa doan izango da, eta ez da

izena eman behar. Nahikoa da 18:30etan <https://meet.jit.si/zilegieskola> loturan sartzea.

Deskontua, aurrematrikulak

Bestalde, irekita dago, uztailearen 8ra arte, AEKn aurrematrikula egiteko epea <https://www.aek.eus/aurrematrikula/> webgunean. Hala egiten dutenek %5eko kontua izango dute. **K**

«Espetxean ez dira giza eskubideak errespetatzen»

Azken ostiraleroko kontzentrazioa egingo da bihar Plazan, 20:00etan. Maskarilla, guante eta banderolak eramateko eskatu dute.

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Egoera ohikoa ez izan arren, hileko azken ostiraleroko kontzentrazioa egiteko deia mantendu dute euskal preso eta iheslarien senide eta lagunek. Bihar egingo da, 20:00etan Plazan.

Borobilean egingo dela adierazi dute, bi metroko segurtasun distantziak mantenduta, eta eskatu dute maskarilla eta guanteak eramateko, pankarta eusteko behar baitira, eta nor-

bere banderola, «aldarrikapena ikusgarri egiteko». Diote, egungo egoerak «aldarrikapenak sozializatzeko zailtasunak» sortu dituela, baina deialdiari eutsi diote, «guzti-guztiak etxera ekarri arte».

Patxi eta Juleni babesa

Egoera honetan «espetxe egoerak tentsatu» egin direla azaldu dute, «espetxeak inposatuta», adibidez, koroabirusak nola eragingo zuten ez jakiteagatik eta bitak kentzeagatik. Era berean, Julen Atxurak Puerto I espetxean buruko isuria izan duela gogorarazi dute, eat Patxi Ruiz gose greban dagoela Murtzia I espetxean; «bere bizitza arriskuan jartzen du espetxean ez direlako giza eskubideak errespetatzen». Elkartasuna adierazi diete. **K**

Hirugarrenez gaur, generoa eta hirigintza

ASTIGARRAGA BERDINTASUNA

Hirigintza ordenantza berritzean genero ikuspegia txertatzeko lanean ari da Udala herritarrekin, eta bide horretan, gaur, hirugarren bilera egingo da, telematikoki. Herritarren ekarpenak jaso eta etxebizitza genero ikuspegitik nola geratu daitekeen irakatsiko da. Bileran parte hartzeko, <http://meet.jit.si/astigarragageneroikuspegitik> lotura erabili behar da, 18:00etatik 19:30etara.

Udalekuan izena, gaur arte

EREÑOTZU UDALEKUAK

Uztailaren 2tik 24ra udalekuak egiteko asmoa du Olak Auzo Elkarteak 12 urte arteko umeentzat, eta gaur da izena emateko azken eguna. Izena, abizenak eta harremanetarako telefono eta helbide elektronikoaren berri eman behar da nagore-m@ereinotzu.eus helbidean; 65 euro dira.

Smartphoneei buruz, gaur goizean

URUMEA KZGUNEA

Zuzeneko online hitzaldi berria emango du gaur KZ Guneak, 11:00etatik 13:00etara, gaztetelaniaz. Smartphoneei buruzkoa izango da, YouTubeko [KZguneaTIC](https://www.kronika.eus) kontuan. www.kronika.eus webgunean lotura jarriko da.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

PRAXKU URRUZOLA LOINAZ

(Elutxeta sagardotegia)

- Goian bego -

GOIZETAKO LAGUNAK



Hernanin, 2020ko maiatzaren 28an

IRAGARKI MERKEAK

Sukaldari bila gabiltza Hernaniko jatetxe batean, esperientzia daukana. Deitu: 943 55 64 81 Irakasle titulatuak lehen eta bigarren hezkuntzako klase partikularrik emateko prest. Online nahiz presentzialak. Deitu: 943 12 41 28 (ez bagoaude erantzungailuan utzi zure mezua) **Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)